

ZUMARRAGA / Ipuinak nola egin ikasi dute gaztetxo askok

U. Barandiaran

Sormena landuz ipuinak nola egin ikasi dute 20 gaztetxok azken bi hilabeteetan liburutegian izan den ikastaroan. Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik jaso dituzte jakin beharreko guztiak, eta herenegun eman zioten ikastaroari bukaera. Gaztetxo bakoitzaren ipuinak kontatu zituen irakasleak eta eurek ere zenbait ipuin irakurri zituzten. Jaiari bukaera emateko ikasleek eginiko ipuinekin osatutako liburuxka banatu zitzaien ikastaroan parte hatu zuten gazteei.